

Uliako Krosa ♦ Georgisek irabazi zuen emakumeen proba eta Gacharak gizonena

Atleta afrikarrak nagusi


Estitxu Urrutia korrikalari bizkaitarra bigarren sailkatu zen

Andoni Urbistondo / Donostia


ATLETA afrikarrek duela hiru urte lortutako azken garaipena berri zuten atzo Uliako Krosean, Donostian. Eurak ziren faborito, eta ohi den moduan, pronostikoak bete zituzten. Gizonen proban, Bartolome Serrano izan zen James Moiben eta Daniel Gachara -garailea- kenyarrei aurre egin zien bakarra. Emakumeen lasterketan, aldiz, Estitxu Urrutia bizkaitarrak hautsi zuen proba, baina azken esprintean ez zuen aukerarik izan Gennet Georgis etiopiarren aurka.

Zirkuitu laua, ibilbide ona eta eguraldi epela ei dira atleta afrikarren baldintza gustukoak. Atzo, Donostian, hiru baldintza hauek nabarmendu ziren, eta afrikarrak podiumeko ia postu guztiak bete zituzten.

Emakumeen proban sei korrikalarik bakarrik hartu zuten parte, eta horietatik bat, Irene Kipkorir kenyarra, atzean geratu zen hasi eta berehala. Carla Sacramento portugaldarra zen faborittoa azken esprintean, eta horregatik, Estitxu Urrutia bizkaitarrak taldea hautsi zuen lasterketa amaitzeko hiru kilometro falta zirela. Gennet Georgis etiopiarrek, ordea, Urrutiaren erritmoari eutsi zion, eta errelebo bat eman



Daniel Gachara kenyarra eta Gennet Georgis etiopiarra, Uliako Krosaren garaileak.



EDURNE KOCH

Uliako Krosa

Gizonezkoen sailkapena

1. Daniel Gachara (Ken)	28:18
2. James Moiben (Ken)	28:20
3. Bartolome Serrano (Kat)	28:26
4. Sammy Toom (Ken)	28:37
5. Sammy Kipsang (Ken)	28:47

Emakumezkoen sailkapena

1. Gennet Georgis (Eti)	17:22
2. Estitxu Urrutia (EH)	17:24
3. Carla Sacramento (Por)	17:32
4. Vanessa Galan (Esp)	17:38
5. Natalia Azpiazu (EH)	17:44

gabe bizkaitarraren babesean indarrak gorde. Urrutiak erritmo aldaketa anitz egin zituen azken kilometroan, baina Georgisek erraz erantzun zien guztiei, esprintean garaipena aise lortzeko. Urrutia bigarren izan zen eta Sacramento hirugarren.

Serrano kenyarren aurka

Gizonen proban are nabarriagoa izan zen afrikarren nagusitasuna. Jose Ramon Rey espainiarrak segundo batzuetako aldea lortu zuen hasieran, baina 10 atleta afrikarrek eta Serranok osatutako taldeak bigarren itzulian irentsi zuen. James Moibenek selekzioa egin zuen erritmo gogorra jarrita. Gachara, Serrano eta Toom geratu ziren aurrean.

800 metro geratzen zirela Toom atzeratu zen, eta 300 metrora Serrano. Garaipena Moiben eta Gachararen arte-

ko esprint ikusgarrian erabaki zen, Gachara nagusitu zelarik. Hirugarren Serrano izan zen. Junior mailako probak Nagore Aramendi eta Iñigo Arruek irabazi zituzten.

Estitxu Urrutia:
«Irabazteko beharrezkoa zen taldea haustea»

ESTITXU URRUTIA korrikalariak lasterketa bikaina burutu zuen, baina bere lan onak ez zion eman hain gogotsu bilatutako garaipena. Urrutia bigarren sailkatu zen eta lasterketa amaieran nahikoa haserre mintzatu zen: «Horrela ezin da irabazi. Aurreko bikotean ni bakarrik egon naiz tiratzen denbora guztian, Georgisek ez dit erreleborik eman, eta azken metroetan erraz irabazi dit».

Bizkaitarra pozik agertu zen egindako lanarekin eta bere taktika talde lehenbailehen haustea zela azpimarratu zuen: «Nik behintzat garbi nuen azken metroetara guztiak elkarrekin iristen baginen inolako aukerarik ez genuela Carla Sacramento-aren aurka, eta indartsu sentitu naizen unean aurrera egin dut». Estitxu Urrutiak Sevillako Mundialerako prestakuntza egiteko helburua izango du aurrerantz.

Bestalde, Bilboko Santutxu auzoko herri-krosean Fernando Zuloaga eta Mikel Fernandez korrikalari eta lagunak elkarrekin gurutzatu zuten helmuga, 7 kilometroko lasterketa burutu ostean. 850 korrikalarik hartu zuten parte.